

MUFACE: gaur egungo erretiroa arriskuan

Herri-langileok dauzkagun eskubideen aurka Espainiako gobernuak hasitako erasoak amaierarik ez dauka. Madrilgo Funtzio Publikoaren Mahaian gobernuak aurkeztutako proposamenak helburu garbia dauka: MUFACEko funtzionarioek erretiroa hartzeko dauzkaten baldintzak okertzea eta erretiro aurreratua hartzeko eskubidea epe motzean murriztea, eta aurrerago desagerraraztea. Aldaketak pentsioen erreformak ezarritako bidetik doaz. Honela, langile guztien lan-baldintzak parekatzen omen dira. Aurpegia behar da gero! Denen eskubideak igo beharrean, murrizketak ezartzen dizkigute “berdintzeko”.

Zer murrizketa ezarri nahi dituzte?

2013an hasita erretiro arrunta 65 urtetik 67ra atzeratu, era progresiboan eta pentsioaren %100 jasotzeko baldintzak gogortu (kotizazio-urteak 35etik 37ra igoz).

Borondatezko erretiroa hartzeko eskubidea 60 urtetik 63ra igo progresiboki; gainera, 2021etik aurrera pentsioan murrizketa izango da erretiro aurreratua hartuz gero:

Urtea	Gutxieneko adina	Zerbitzu-urteak
2013	60 urte eta 4 hilabete	30 urte eta 4 hilabete
2014	60 urte eta 8 hilabete	30 urte eta 8 hilabete
2015	61 urte	31
2016	61 urte eta 4 hilabete	31 urte eta 4 hilabete
2017	61 urte eta 8 hilabete	31 urte eta 8 hilabete
2018	62	32
2019	62 urte eta 4 hilabete	32 urte eta 4 hilabete
2020	62 urte eta 8 hilabete	32 urte eta 8 hilabete
2021	63 urte	33 urte

1. Pentsioen erreformarekin gertatu bezala, ausartuko al dira sindikatu espainiarrak euren babesa ematera, beste behin herri-langileen interesen defentsari muzin eginez?
2. Inoiz baino ageriago dago Euskal Herrian, Gizarte Segurantzari dagokionez, sistema propioa behar dugula, besteak beste erretirorako baldintza eta eskubideak bermatzeko eta kanpoko inposizio murriztaileak saihesteko.

Erretirorako adina igotzeari ez!!

60 urterekin, borondatezko erretiro aurreratua denontzat!!